

ESATARIA: Felisa Enparantza Galdos.

ADINA: 76 urte.

JATORRIA: Oñatiko Kale Zaherrekkoa. Bizitza osoan Oñatin bizi izandakoa;  
gurasoak eta aittajun-amandreak ere Oñati bertakoak.

GRABAKETAREN DATA: 1987ko Martxoak 29an.

EGILEA: Roberto Altuna Erle.

Oñatiko ohitura ederrak ee kontauko nittuke zeatik eze gu gaztiak gi-  
 nala ta Agostoko Amabirjin egunian San Martiñea faten zan bandia, eta  
 herri guztia faten ginan San Martiñea tanboliñ taa banda, guraso, ume, gaz-  
 te danak han batzen ginan eta eitten geben ee joten ebeiñ soinuak eta  
 dantza jente gustora jentia dantzan hantxe eta esaten xako, oin hori be  
 ez da entzuten baina guk amai ta entzuten gotzan San Martingo moñua eta  
 San Martingo moñu hori da elizatik kale aldea dauen ee arbola atertxua.  
 San Martingo eliziandik ba Zenizeo aldea eta kale aldea dauen ha, eta oin  
 ez da entzuten, nik esan izan xat beste batzuri be, oin etxat inori entzu-  
 ten ee San Martingo moñua, ta ni ez nau sekula ba entzunda ta gu amari  
 ta aitari taa Beti San Martingo moñua, ta San Martingo moñuan joten ebe-  
 iñ musikiata jente guztia dantzan han barkileru ta danak faten zian eta  
 izugarri erromeixa ederra eitten zan eta gero ilunkaran baa jeisten zian  
 zeaino Zenizeoko Etxaluzeko prazuelaraino eta han beste pieza bat paso-  
 doble bat edo joten ebeiñ han eta gero bandia joten jera jeraka jende  
 guztia plazaraino, neska mutil guztiak alkarri helduta ta umiok ta denok  
 jera jeraka Etxaluzetik aiuntamenturaino plazaraino, eta gero hor azkenen-  
 go piezia atzera berriz ta horko txaluak ta horko gauzak izaten zian, gau-  
 za bat ederraua!!, gainera aste guztian gaztiak pasaitten ebeiñ ee pentsai-  
 tten domekarako domekarako, domekia ondo pasaitteko eta gero ba domekero  
 eoten zan plazan musikia be eta jende guztia plazan dantzan eta jenerazi-  
 ño hirurak juntaitten zian plazan: guraso, semealaba eta ilobatxo, ume ta  
 zahar ta gazte ta danak bat batian pasaitten geben oso ederki plazan da-  
 nok domeketan eta aste guztia fan zan domekiakin pentsaitten eguenearte  
 eta gero eguenetik aurrera domekia atzera etorriko zala eta ha zan bizi-  
 ttia!! niri pentsaitten xat orduan hobeto bizi ginala zer hortan aspeto  
 hortan, oin gaztiak ba tabernaik taberna ta oso oso aldatu da gauzia, ha  
 gauza ederra izaten zan, halako soinu ederra entzuten da dantzan plazan  
 eta beatzittarako ba danok etxea eta hola izan zan gure gazte denboria,

eta aurrekoei be horreitzek entzuten gotzan, gure guraso zaharragui ta be plazan zelan dantzan eitten ebeifñ ta gero San Juanetan ta San Pedro egunian da horreittan be ba erromeixak izaten zian auzuetan Olabartan ta Urobarrin ta hantxe izaten zan neguan San Andres da, haraxe gutxi faten zan baina bestela auzo guztietan/jentia batzen zan eta ba filarmonikia izaten zan auzotan atanboriak ta filarmonikia ta, baitta herriko danboliña be, eta kalia behera plazatik kalia akabo arte joten faten zian, gero atzera bueltan be atzera kale barrenetik ee plazara danboliña atzera joten eta San Juan egunian be Unibersidade aurrian ee izaten zen ee akaberi hori Unibersidadien aurrian, danbolintteruak joten ebeifñ pieza bat edo bi eta hortxe be pittin bat dantza eitten zan da sasue onian etxera danok, eta horreik danak galdu dira eta penagarrixa da, nik ez dakitt oingo gaztiak nola ez daueifñ ezautu hori ba ez daue hutsez botaten hori baina ezautuko baleue nok jakin ba ze gustauko lleikieifñ gehixau oingua edo lehengua, ze lehengua gauza ederra zan oso, auzotan eitten/zian erromeixak eta, bai, eta San Juan goizian be bazan ohituria estee basarrin batzutarra ta ibilttia filarmonikiakin ta esaten zan inuntza hartzera, inuntza hartzera esaten zan esaeria zan, goizeko inuntza hartzera ta goizian goiz filarmonikiakin ta San Juanera ta beste batzu beste leku batera ta, neu be ibilitta nau, San Juanen egonda nau argazki bat be badakot hangua, San Juan egunian neska mutilak ba inuntza hartzera hori izaten zan, eta hola be ibiltten ginan ta, gauza eder asko ezkutau dia, asko, eta neuri ba horrek emuten dost ee nahigabe handixa, guk ezautu gebenetik ee oifñ ikusten dugunera, zeatik neuri iristen xat balitteke guk baino hobeto guk pasau geben baino hobeto igual ibiliko dia oingo gaztiak, baina neuri pensaitten xat ezetz ee, hala tristiau edo ikusten ttut nik, barrez be ez dot ikusten oingo neskarik, gu barre kankadak ibiltten ginan, ta oifñ ez da ikusten, ez da entzuten barrerik pe gaztiei ta nik ez dakit o estuixuak ekarri daueifñ be e ez dakit guk e hamalau-hamabost urterako eskoliakin geatu ginan ta, oifñ euron liburuokin ta preokupaziño gehixau dakoifñ edo

ez dakit zek konsistitzen dauen,neuk ikusten ttut e tristiau,arpegi tristiau eta barrerik bez ez dostet entzuten;ta eztaixak be ezautu ttut ezta Oñatin,ba bat gainea neskatilatxua nintzala arriua zabalketan ee san Antue kalian hortxe ikusitta nau eta hiltten ebeifñ ba txahal edo hiltten ebeifñ baserriko eztaixetan txahala hil da hiru eguneko jaixak izaten zian,eta etzian faten ee boda zera be "Viaje de novios" da oifñ esaten dana be, itxian geaketan zian,etzian faten,banaka batzu igual fango zian baina bazian etzianak faten be,itxian bertan ezkondu eta izugarriko jan-edanak eitten zittueifñ,izugarrixak ta geo eruaten eben e arriua be erakusten ebeifñ:honenbeste izara,honenbeste kamixa,eta aldian dakonakifñ honenbeste ta hola esaten ebeifñ kamixagatik eta geo bat beti izaten zan baten bat erantzuten ebena:eztakiu aldian dakonik! je,je,je..,holako bro-mak be izaten zian eztaittan da,eta ba zenbait koltxue ta zenbait gauza, zenbait manta ta gauza danak erakutzi eitten zittueifñ gaiñera,burdixan eruaten ebeifñ ta burdixari zaata bat jarten otzain kirrrii,girri,..holako zaata bat burdixari jarten otzain txirrinkatan ta hola,eta geo irakusten ebeifñ arriu hori ta,holaxe ba bakoitza bere etxian geaketan zian,or-duan be batzu fango zian,baina guztiak etzian faten e etxetik kanpora biajera eta ba soinua orduan be soinua ta dantzia ta irrintzixak eta,gauza alaixak,lan asko eingo zan orduan baina gero ohittura horreittan disfrutau asko eitten zan,asko disfrutaitten zan,bai eta ba halakotxe bodak izaten zian.

Beste gauza bat be gurasoak kontaitten doskun,hamen e bizi izan zan gizon zer bat izan behar zan este bastante garrantzitsua edo barregarrixa edo hola herrixan izaten dia batzu e barregarrixak be ezta? eta bere ne-gu ta uda beti bere bizimoru guztian kapiakin ibiltten zala,kapia,lehe-nau euskaldunak kapak ibiltten zitueifñ nonbait,kapia bazan euskaldunena ta,kapiakin da ia ifiñi otzain izena herrixan ba "Sienprekapas",ta ent-dittten zan herrixan "Sienprekapas" ta oifñ haren kontu gehixau izango dia baina bat goguan hartuta guk umetan gurasuei ba,seguru be Oñatiko kanpantorreko erlojuak ifini zianian,kanpantorriai erlojuak ifini xate-

nian Oñatiko mutilzaharren bat e ondo bizi izanen batek emun eben dirua  
 kanpantorreko erlojuak ifintteko ta hori izan biazan llobia erlojuak e  
 mun ebenen llobia "Sienprekapas" ta "Sienprekapas" hori beti ebiltten zan  
 a ahal dan mouan pobre antzian da hola justuan da larri ta hola eta hasa-  
 re ibili i zan seguru be beari itxi biotzan dirua kanpantorrian erlojuak  
 fintteko ta ni hamen ahal dan mouan ta kanpantorria erlojuak ifintteko di-  
 ua emun gure osabak eta hola ibiltten i zan ta geo ba ifini ziala ba erlo-  
 juak eta hasi ziala erlojuak joten tin tan da tin tan da orduetan ta,ordua  
 oten ebeñ guztian kalian bazixoian euen lekuan euela esaten ebela beti:

tin tan tin tan neria zan

"Sienprekapas"ena zan.

a nere osaba baten atzeaurreak be kontauko dittut,estee nere aitan anaia  
 an eta herri guztiak ezauketan eben Polo esanda,eta Polo jarri xakon ize-  
 a orduan beste jokurik ez euan pelotia, pelota lekuan pelotan,ebiltten zi-  
 n mutiko guztiak ta gue tio Polo horrek botaten i eben gora oso pelotia  
 so gora eta eta mutikuak esaten otzaila:hi beti Polo Nortera botaten dok  
 elotia!,Polo Nortera ezin xuau harrapo hire pelotarik eta ordutxetik jarri-  
 tako izena zan Polo,bere izena zan Pedro baina esaten gotzan danok pe tio  
 olo esaten gotzan da holaxe,eta oso izan zan e famosua zeatik e abenture-  
 na oso izan zan ta lanik etxakon gustaitten itterik,eta ba lehengusu batzu  
 eukan Enparantzatarak zeian Ameriketara Arjentina aldian da Txilen bebai  
 a,Arjentinaa eruan ebeñ bere lehengusu batzu,hamen ezin ebein ba lana e-  
 ni da hola ta,ba gero Arjentinan ba emun otzain lanen bat baina uutik ha-  
 ek lanik gura ez ta aee atzea Euskal Herrira gura ebela etortia,hori Zu-  
 arraako zeorrek mouan,Iparragirren antzekua zan,hara Euskal Herrixalako-  
 k ez dauela ta atzea Euskal Herrira etortia gura ta,ez i otzain emuten  
 rurik biajerako eeta hiru hilabetian fan zan puertora "de polizon" sar-  
 zeko zerian barkuan debalde etorteko,beak kontaitten doskun guri osaba,  
 beari entzuten eotengitzan gustora eeta faten i zan barkura ta ezin da  
 rrengokuan be ezin da hiru hilabete ba azkenian e ikusi eben ganau pila  
 t barkuan sartzen eta sartu da ganau artian,ganauakin da sartu da barku-

an eta bueno ontxe banoiak ni Euskal Herrira eta badoian han ganau ar-  
 tian gordeta ta,hasi da martxan zeori barku hori da gero etorri zanian  
 ordua ganauari jaten emuteko zaintzaile hori fan da jaten emutera eta  
 gizona ikusi auenian eene!,baina ze itten dozu zuk hamen ta,sustauta  
 zaintzaile hori ta,ez larrittu, ez larrittu nik nere herrira gurot fan,  
 enekuan dirurik ta hamen sartu naiz,a ba lehenengoko zerian portuan ate-  
 rako zaut eta konponduko zara,sustauta gizon hori tta beak ba i eukan  
 han maletero edo zelabait e dirutxo batzu irabazitta zeian gordeta bia-  
 je hortarako Ameriketari da,baakot diru pittin bat baakot,emungotzut da-  
 koten dana emungotzut zeuri,eta orduan ha be ba diruaatik engañau je,je,  
 je,eta halaxe dirutxuok emun i otzan ta ekarri ebeñ Bartzelonaraino,ta  
 beak eruaten i otzan jana ganau artera eruaten i otzan jana ta,hala eto-  
 rri zala Bartzelonara ta,Bartzelona urten ebenian barkutik xemiko bat  
 bez poltsikoian eta geo esango da bata ta bestia baina makina bat on be  
 itten daue komentuak,bere zea defentsa guztia zan komentuak,komentura,  
 komentuagatik preguntau i eben,aber komenturik han dauen da,baietz han  
 dauela eztakit nun be,komentu bat eta preguntau galdeka galdeka galde-  
 ka ba jo ebela komentu batera eta han emun i otzaiñ jaten da egunero ha-  
 ra faten i zan jatera aik eta trenerako diru pittin bat iñ arte ,eta ge-  
 ro ba estaziñora,lehen maletero asko ebiltten zian estaziñotan e hala  
 tasisik;eta ez euan tasisik eta nola ez euan ba maletakin jeisten ziani-  
 an ee jaunok etxeoandreok edo dana dala ba maleteruen biharra eukitten  
 ebeñ da,maleteruari emuten xaten e propiñia ta etxeaño eruaten ebeñ  
 bizkarrian maletia,ta hola ibili zan Bartzelonan dirutxo batzu eifñ arte  
 eta diru iñ ebenian treneako laiñ ta komentuan jaten ibili ta,auskalo  
 zelako erropa zikinakin ibiliko zan gixajua,ja,ja,ja,..behintzat jo dau  
 ñati ta gue amandria e sukaldian bazkeixa e eitten,ta han presentaitten  
 rako semia,Ameriketari dauelakuan eta sukaldian presentau:zer dabik bai-  
 na seme baina zer dabik?.Zela etorri haiz?,sustauta ixa mariuian gure  
 amandria,bere ama,eta baa ni enintzan harako itten da,ni nere herrira

etorri naiz atzera ta,eneee eta ama be alde batea pozik bestera ze esango ete zan ta hola,ta geo ba hamentxe bizi izan zan ee amakin da bere anaiakin da,gure aitakin da hamentxe bizi izan zan da,gero ba haundizaletxua be bazan,bere aitta karlista denporan arruinata geatutakua zan,Mariano Enparanza,eta geo semiok be ba fiñak urten ebeifñ,horrexek urten eben abenturerua,beste seme guztiak oso bikainak urten ebeifñ langiliak eta bikainak,baina honi etxakon lanik ittia gustaitten da gero haundixa bizittia bai eta ura guztietan Donostiaraino beraniaittera oinez faten zan,eta gertaketan eben baul haundi bat bere erropakin ta zeakin Brinkolara fakturia fakturau etaa:Donostian trapero baten itxian eukitten eben baul hori ta traperu horreaz entenditten zan eta han be komentutara ,batian Kaputxinotara,bestian Jesuitetara,komentutara jatera eta pasiau jente dotorien artian pasiau eta urtero urtero urtero:Donostiaraino faten zan oinez Oñatitik oinez,lehenengoko deskantzua itten eben Tolosan,Tolosako frailetan e bazkaldu ta atzera be bere pausuan ee soseuz soseuz goizian goiz urten Oñatin eta ilunkarako Donostiara ta Donostian bi anae eukan,politto bizi zianak zian eta hareik pe esaten otzain ba lana eitteko,lana eitteko eta hola ebiltten zan komentutan jan eta Kontxako bankuetan e lo eitten eben,eurixa zanian traperue-nian eingo eben eta beak esaten eben:ai ze lo ederrak!.Ze lo ederrak Donostiako Kontxako jarleketan!.Ze lo ederrak itsasoko zaatak entzuten,itsasoko zaatak buuum,ola zaatak entzuten ta hantxe lo ze ederki eta geo egun guztian ba hantxen ibili señoran onduan da kaballeruen onduan da aberatsen artian ibili eta jan zeian komentutan eta bapo gure mutil-zahar hori,holaxe bizi izan zan,ta geo anaiak ba hola:ezin zeikiela ta ezin zeikiela ta sartu ebeifñ mikelete,bueno mikelete sartu ebeifñ da ikasten ba bere zeak in bihar eben e gauzok eta ikasten bere obligaziñu-ak ikasten da ibili zan da ze in bia eben ta nola ibili biako zan ta hola eta geo ba azkeneko egunian ba ifiñi otzaiñ sorbaldan e eskppetia eta eskopetia ifiñi otzaiñan,neri!,gizonak hiltteko tresna neri bizkarrian

e to,to,to,to, hartu ta hamen dakoze,ta itxi eben.e mahai baten gai-  
 nian eta agur agur nik eztot gura gizonak hiltteko tresnarik eta bo  
 zuendako dana eta kitto mikelete ze hori itxi eben hartan.Eta geo ba  
 berak jentiari esaten otzan hala pittin bat erderia tentaitten ebena  
 zan da,estee esaten eben beak:"con una copita y una chortita a San Se-  
 bastian a patita" ta ondio be badauz zaharrak e hori goguan dakoinak  
 eta esaten dostainak neri zuen tio Polo e ha zan famosua e ta ondio pe  
 ebiltten daue bere barrixak e bere gauzak jentiak kontaitten ttu ondi-  
 ok pe,eta halaxe faten zan ha Donostiara urtero urtero eta neguan be  
 oingo mutilen antzera ulia ebai barik ibiltzen zan,hotzittu eitten da-  
 la ulia ebaitta kokotia bai eta beruau ibiltteatik e burua ta ulia Mar-  
 zuan ebaitten eben zeetik udazkenetik Marzo arte ez eben ulerik ebai-  
 tten eta haaxe barbeixan e diru ha ez gastaitteatik ba urte askuan ne-  
 uk ebai notzan Marzuan ulia,bai neuk ebaitten notzan.Faborez eebakiko  
 al didazu?.ta hola itten eben pittin bat berba donostiar eta je,je,ho-  
 lakotxia izan zan eta Inglaterran be egon zan,Inglaterran be ibili zan,  
 Frantzian bebai eta beak ezekixen esaten,ba bea betik bere txapelakin  
 ibiltzen zala leku guztietan euskaldun txapelakin betik eta Inglaterran  
 behin e zerian doiala ee tranbian baten doiala batek dihaarka kaletik:  
 Vaasco! Vaasco! dihar iñ i otzan eta etzinan jeitzi esaten otzaiñ,jei-  
 tzi in bihar zinan zein zan edo eta bai!tranbia geatuko zan nereatik,  
 je,je,ni tranbian jarraitu bihar izan neben ta gehixau ez neben ikusi,  
 baina ha be izango zan euskaldunen bat eta txapelakin ikusi nauenian  
 horixe diharka,ha be pozik ikusi euskalduna!,han be! eta holakotxe kon-  
 tuak eta gero "Café la Marina" izan zan oso famosua Donostian,eta ana-  
 lak han be sartu ebeiñ kamarero be,baina bai zea!pajarittiakin han i-  
 biltteko gogorik ez eukan harek,pajarittiakin eta ibili bihar uutik ho-  
 lako gauzak,ee,eta oso pentsakerakua zan asko pentsaitten egoten zana  
 zan,ni ez dakit ze pentsauko eben bere biajetako kontuak edo baina oso  
 zan e pentsaitten egoten zana eta lanerako sekula bez gogorik eta hola-  
 xe hil zan gere artian,bai.

Negu ta ura afaldu eta gero urtetan eben plazara eeta bakar bakarrik e baten bat "Txikito" esaten otzain beste famosu bat arrimaitten xakon batzutan kontu batzu esatea baina bakarzalia zan, tabernaa ta hola pentsau bez e, ezta sekula txikito bat edatea bez, tabernaixa ta ezebe etzan, emakumeetara ta bez, bera berekasa halaxe gustora ibili, basora, basozalia be bazan eta azkenengo aldiz e koskolak be batzen zittuan e zeian basuan, koskolak batu eta geo saldu itten eben koskolak beretzako fumau, fumatzailea izugarrixa, ta fumaitteko tabakua erosteko koskolak e, basua gustaitten xakon asko ta, basuan jazarri ta denpoa askuan igual egoten zan ta hola ebiltten zan, eta gero ba egun egunero gabian afaldu ta gero plazara pasiora, plazan gustaitten xakon eta neguan ibiltten zan arkupeian, arkupeian eta gero eta gero udaan ibiltten zan plaza erdixan, uraan plaza erdixan, beno udia baino lehenau ibiltten zan plazaa plaza erdixa baino pittin bat losa alderatxuau, losa alderatxuau eta gero uraan beruak hasten zianian itturri aldian, hiru leku eukan pasiaitteko: neguan arkupeian, geo plaza erdi inguruan ta geo plaza erditik harutzatxuau udaan beruakin bai eta hamarrak ingururako tapapa tapa, pauso hauxe eukan tapa, tapa, tapa, holakotxe pausua eukan eeta etxea etortzen zan da ixil ixillik bere uhera faten zan da holaxe, eeta gerra denporan euki eben bere disgustotxo bat, zeatik eze koskoletara faten zan eta guardia zibilak e deteniu iñ ebeñ sospetxosua ete zan edo eta gaixotuta egon zan, beari hori ittia, behintzat e deteniu ebeñ da zein zan da preguntiak da zeakak eta siñistu ezinik espia bat ete zan edo eztakit ze pentsau ebeñ, basuan hala sakuakin da eta disgusto hori euki geben e eta beak haundixena gainera, zeatik zan persona ezaun ezauna Oñatin da hoixe pasau xakon gerra denporan, eta gero bildurrez egon zan e basora fateko ta beste batzu esaten otzain horreatik fan zeke ta, hola ibili zan, bai.

Eta jai egunetan azkenengoko mezia izaten zan hamaiketan Agustifiotan, eta faten zan ordu laurden lehenau edo ate ingurura eta gustau, hara faten ginan ba gazte asko faten ginan meza hartara, gaztiak asko faten

ginan da hala jende dotoria be faten zan da, hola ta gustaitten xakon  
 ba beti jende dotore artian da, gaztiari begira eoten zan da hola, eeta  
 ordu laurdenian eoten zan jente dana sartu arte, jente guztia ikusi ar-  
 te jente guztia elizan sartu arte ta, daaana jente guztia kontenplai-  
 tten eoten zan, danai begira, danai begira, jente guztiai begira eta ne-  
 ri be esaten nontan: baina zu nola bizi zara Oñatin, ni joskin ona izan  
 naiz esta kategorixakua izan nintzan joskina ta, zu dakozun eskuakin  
 zela zauz baina zu Oñatin bizitzen?, hori esaten nontan neri, zu fan bia  
 zinake Parisera, Parisera! dakozun eskuakin eta hola ibiltten zan, eta  
 beti gustaitten xakon ba kontenplaittia hala kontenplaziñua gustaitten  
 xakon asko ta basuan be ba baso danari begira ta eta umiak gustaitten  
 xakon asko a ixa ahaztu nintzan esatia oso umezalia zan eta umiak arri-  
 maitten xakon zeatik beti ume guztiai ainketan otzan, ekarrikutzut zu-  
 ri aireoplanuaa, ekarrikutzut marikittiaa, ekarrikutzut karameluaak eta  
 tio Paulo noiz ekarri biozu ba karameluak eta noizian behin karmelo-  
 txo batzu partituen eben umien artian eta ontxe be esaten dostei neri  
 askok, enee zuen tio Paulok esaten zoskun ba geuri e aireoplanuak eka-  
 rrikoskula ta, gu beti bere ondorian ibiltten ginan da noizian behin  
 horratio emuten oskun karmelo bat, ta oso umezalia izan zan, betik in-  
 guruan umiak eukitten zittuan, bai, eta alkondarak pe ebiltten eben ba  
 gemeluakin, gemeluekin da domeketan da dotore, gemelo dotoriekin da al-  
 kondarak eta be, bai, dotorezalia bazan e, baina lalanik ez lanik ez. Ta  
 bere moruz inor molestau barik eta ondo bizi izan zan bai, ondo bizi  
 izan zan.

Paparretxe mutilzaharra oso famosua zan eta ba kantaittia gustaitten  
 xakon hari asko eta izugarriko kantuak itten eben ta jakina <sup>esaten otzain</sup> luziau in-  
 bia ebela arnasia hartu barik luziau eta arnasia hartu barik luuze i-  
 tten da ibiltten zan kantuan, oso zan e Paparretxe famosua mutilzaharra  
 kalebarriko jaixetan ta be betik efintten ebeñ ba kantaitteko ta ho-  
 la eta halaxe bizi izan zan ha be, haren kontuak be badira asko baina  
 neuk oin goguan ez, baina Manuel Paparretxe oso famosua izandakua Oña-

tin.

Kokota ta Ibabe oso zea zian oso famosuak zian horreik pe ba lanik ittia gustaitten etxakoinak zian da. Behin e biha ebeñ e dirua edateko eta zea ta karnabaletan da urteten ebeñ hamen ba jantzitta otzo jantzitta ta behin asmau ebeñ nola etorten zian lehenau auskalo nunguak e otzuakin da atanboria joten da diru batzen da ibiltten zan baai hungarianuak esaten gotzan guk, hungarianuak etorri dia , hungarianuak etorri dia ta kaleik kale ibiltten zian hartza haundi bat dantzan eta joten ebeñ atanboria gizonak eta geo dirua batu, dirua jentia batzen zan inguruan hamen inguruan da geo dirua batzen ebeñ eta Kokotak eta Ibabek ba behin pentzau ebeñ ba batek otzuen ittia eta bestiak ba zea hungarianuena ittia ezta eta Kokota jantzi ebeñ otzo narruzko gauza bat baserrittan da egoten zian hala narruzko animalin baten narruzko gauzak eta eta makurtuta ha dantzan eta Ibabe atanboria joten soka batez az lepotik helduta lotuta otzu hori gizon hori Kokota eeta bestiak ja ja ju ju uuu aa hala kantau hungarianua mouan da atanboria jo eta daantzan besti hori saltoka saltoka saltoka herriko ume guztiak ondorian ta jentia bebai batzen xaten ta oso ondo itten eben otzuen saltoka, saltoka, saltoka je, je, je Kokotak eta Ibabek berriz kantau ta atanboria jo ta batu ebeñ nahikoa diru eta geo Naparreneua, Naparreneko ta bernia zan oso famosua ta Naparreneua ardaua edatea geo, han batu ebeñ diruakin dda, ta jente guztia ba disfrutau itten geben holakuekin, gizon horreikin ba disfrutau zeatik etzian txarrak izan onak izaten zian, gizon onak, gizon onak baina lanetarako ta gura ez da samur bizittekua eta onak gizonak, eta egun baten ba hoixe asmau ebeñ eta halaxe batu ebeñ dirua hortaxe eta beste egun baten ba Ibabe be zan eralia oin alkoholikuak esaten xate eralia zan da Euen Santu egun baten ia goizian eguerdi orduko edanda ta ha be frailetara faten zan bazkeitte- ra, hari be Bidaurretako frailliak emuten otzain bazkeitte- ta fan da holaxe Ebeikotz Santu egun baten e eranda eguerdixan da esate xau frailliak: baina Juanito gaur be hola! gaur be hola!. Ze ba?. Ze ba?

Eztakitzu gaur ze egun dan?.Eëez!,nik eztakit gaur ze egun dan!.  
Jesukristo hildda ta.Eene gaixorik euen edo?.Enekixen baina!.Eta  
frailiak beste erremeixorik ez eben euki barre in baino,ta emun  
otzain bazkeitten,je,je,..

Oñatiko andra bat euan Madrillen iñure,iñuriak zian ba sekulako go-  
natzarrakin da umiak hazten ebeifñak,jantzi desbardinak besteengandik  
ibiltten ebeifñ iñuriak,iñuriak jazten eben belarrittako haundixakin  
da buruan be kofiatxo bat eta,kuelluak be almidonauta ta oso dotore  
jantzitta ibiltten zian iñuriak,aberatzen umiak e hazten ebeifñak,zea-  
tik aberatzak euren umiak etzittuen hazten, ez e lan horreik hartzei-  
atik beste ama bat eukitten ebeifñ aberatzen umiak beste ama bat,hori  
mediku Madinabeitiari ta oso gaizki jauste xaten Madinabeitiatarrak  
e gauza horren gainian gogorak zian,aurka,zeatik e ama batek hazi  
bihadau umia e ezta hori kristautasuna be e, eeta ba gainera izaten  
zan negargarrixa,euren umiak hamen itxi bai beste itxen baten,beste  
baserrin baten e hazten eta faten zian aberatzen umiak haztera,era-  
baztiatik eta Madinabeitiatarrak eta gogor itten ebeifñ gauza horren  
gainian eta hau euan ba halaxe iñure fan da Oñatiko andra bat,hau i-  
zango zan baserriko bat eta bere umia itxitta euko eben besten bati  
zainketako eta umiak aasko sufritten ebeifñ asko,eta etxe aberatz ba-  
ten eta hango etxeoandria oso zala xuhurra ximuurra oso opa ez nes-  
kamiendako ta iñuriandako da jaten da emuteko ta oso oso ximurra ezin  
opa estee zea potajian da gainian prinzipixua esaten da ba e jaten  
da prinzipixua esaten da potajian da gainian jaten duun okelia ta ho-  
rreik pa prinzipixua ezta ta aberatzak eurok prinzipixua jan da nes-  
kari opa ez prinzipixua eta neskaak e bazkeitten euzela e ixil ixilik  
faten zan etxeoandre hori sukaldera,faten zan sukaldera ze jaten dau-  
sen ikustera ta beti ibiltten zian gordeten da hola,zeatik harei pe  
ingo ebeifñ euren tranpatxuak eta ondo indda gainera eta hola ba Oña-  
tiko iñuriari asmo bat etorri xakon,etorri xakon burura gauza bat:  
Baakiñ ze ingun?.Ni umiakin pasiluan ibiliko naun zuek bazkeitten

zauzen bitartian, zuek bazkaldu trankil bai, zeuek guruzuena jan eta ni ibiliko naun pasiluan umiakín eta datorrenian ikusten dotenian datorrela sukalde aldera nik umiari kantaúko txanat:hemen da,hemen da,hemen da,hemen da,hemen da eta zuek orduan auro ibili eta gorde gauzak, eta halako baten etxeakoandre horrek e galdetu otzan: zu iñure, zu betik e, esaten dozu hemen da,hemen da, ze esan gura dau horrek?. Eta a etxeakoandre hori da euskaldunen kantu bat umiari itten xakon kantu bat eta hala jo otzain arpia zeari etxeakoandriari.

### JOSKINDEGIKO KONTUAK.

Kontuak e kontaitten zian ba askotan e penak bebai itxeetan da, itxe-etakuak eta, nobixo kontuak eta bebai askotan berak gura auenarekin e ezin da, nobixo kontuak eta be ibiltten ebeifñ gure tailerrian bai, neska onak danak, eta eurei gustaitten xakon mutilak konsegiu ezinik eta, hurrengo berriz e gustaitten etxakoiña ondorian da, holako gauzak izaten zian. Eta nundik etorten zian neska horreik?. Ba Olabartatik eta baserrittatik, baserri urrinetatik, Araotzetik bebai; ba orduan ohi-ttura horreik be kontau leke ezta?, bai, aber efiñi ba. Joskina, oso garterik e kanporako josten hasi nitzan hamazazpi urtekin hasi nitzan, hamabostekin edo ikasten hasi eta hasi nitzan hamazazpi urtekin edo josten eta geo ba neskaak hartu nittuan, lehenengo bikin gero hirukin ia hamabi neskaaño allauta nau neguu negu sasoián, zeatik neguan ohi-ttura zan baserriko neskaak kalera josten ikastera etortia, josten puskatxo bat eskua hartzera eeta ba gabonak pasaitten zianian baserriko lan haundixenak e itten zianian aik eta udaberrixan atzea baserri-xan lana hasi bitarte hori hiru hilabete ero baserriko neska gehixenak ebiltten zian kaliañ josten, nerekin batzu, beste batzu beste batzuekin joskindun asko gebitzen orduan, zeatik orduan inddako erroparik etzan izaten joskinak josten gittuan danok, jente guztiandako joskinak itten geben erropak eeta ba joskin leku asko euan eeta ba neska bat tzu faten zian batera beste batzu bestera eta nerekin be be pilatxueak ebiltten zian neguan, geo kaletarrak urte guztian bebai ezta etor-

ten zian ikasi arte ebaitten da dana, kortia ta dana ematen neben nik eta ba dana bukatu arte ibili zianak pe asko dauz onddiok Oñatin nerekin ikasittakuak eta baserrikuena izaten zan eskua hartu arte puskatxo bat josten puskatxo bat ikasi ta hola urtian hiru hilabete eta urriñekuak pe etorten zian Araotzetik be eta Araozkuak eta Uribarrikuak gure etxian egonda dauz lo itten bebai ta jaten bebai eurak ekarten ebeiñ babia ta urdaixa ta gure amak euren lapikotxua aparte egosten osten, eosten otzain aparte gura amak eta gero ba gerekin hasi mahaixan jaten ebeiñ euren bazkeixa eta gurian lo inddakuak be badia, urrinekuak eta gure itxian letxe ba beste leku batzutan be halaxe eongo zian urriñekuak josten ikasten eta politto ikasten ebeiñ puskatxo bat e ikasten ebeiñ moldaitten zian geo itxeko arregluak itteko ta lehen asko aprobetxaitten zan, oin danak han menuzketan bada dendaa danak dendaa ta dendaa doiasei ba lehen ez lehen ondo begiratuta ibiltten ginan gu erropakin, eeta ohittura hoixe euan eta geo Santa Lutzia egunian itten geben merienda danok eskotera, batek gauza bat ekarten eben bestiak beste bat ta gure amak ta nere ahizpak eta hor ibiltten zian merienda gertaketan Santa Lutzia egunian, lehenengo esan biot faten ginala mezetara Santa Lutziara ermittara, ta mezia entzuten geben eta gero arratzaldian merienda ederra jaten geben eta gero ba broman hamen eoten ginan batek kontu batzu esan ta bestiak beste batzuk esan da, mutilen kontuak eta urteten ebeiñ dda, bateri mutil bat gustaitten da, mutilak beari kasu gutxi itten da, beste batek berriz e mutil bat ondorian da beari ha gustaitten ez da, ba guztiekuak ibiltten zian, oso kontu alaiak ibiltten geben danok eta holaxe bizi izan ginan gu, bai, eta ba nobixari ta be itten gotzan, baina orduan zuriz etzan ezkonketan baltzez erropa ona, baltzez itten geben ezkondu biazan andregaitai ba itten gotzan ba udia baldin bazan sedazko baltza, negua baldin bazan abrigua eta uraberri urazkena baldin bazan ba txaketa ta gona, trajiak eta eurañ mantila ederrakin da, faten zian ezkonketaa paparri-

an e lora zurixa "de la pureza" efinitta da, eta errespeto guztiakin itten zian gauzak eta gero ba batzu ba boda haunditxuauak itten ebe-  
iñ beste batzu txikitxuauak, eta gero ba jokeria zan Bilbora ta Do-  
nostiara ta hola hiru eguneko edo biajiak, "Viaje de novios" gero fan  
zan ba luzeketan biajiok be, urrintxuau ta egun gehixau ta hola bai-  
na lehenau lehenau izaten zan ba lau bat egun biajian eta holaxe ba  
ni Dukieneko etxeoandriari be josittakua naiz da. zeintzuri ez Gara-  
ittarrari tta, hamen jente dotore guztiari Oñatiko jente dotore guz-  
tiari bebai eta gero Bilboko señora bat be eon zan Arantzazun umiak  
txutxurruko eztula ekuaila ta ekarri ebeñ umiak medikuak esanda A-  
rantzazura eeta ba etxeoandre horrek e eskatu eben joskin bat gu-  
ra ebela soineko bat itteko ta nereana bialdu ebeñ da oso lagun in-  
zan etxeoandra hori nerekin eta Bilbokua ekuan gizona jatorra Men-  
dialdua abertzale gogorra Mendialdua, oin be eongo dia haren jatorri-  
ko batzu Bilbon eta danakin lagun in nitzan ta Bilbora be eruaten  
nindueiñ han e jantzixak e probau ta itteko ta gero etorri Oñatira  
ta hola ibiltzen nitzan da, Mendialduak oso goguan hartu neben Mendi-  
alduak esandakua: galtzen bou euskeria galduak gera! heldu bia xako-  
na da gogor euskeriari ta ni oso maitte nuan, zeatik erderaz baino ho-  
beto nekixen euskeraz da eeta oso lotiak danok izan ginan da ixa bi-  
xak hil zian da alabak eta be Frantzia aldian da ezkondu zian euskal-  
dun frantzesen batzuekin edo hola, baina Mendialdua bilbotarra eta ha-  
laxe jente askori nau e josten einda ta, jente zeari be Balenziaga-  
ri be eskua emundakua naiz, bo beak neuri emunda Balenziagak pe es-  
kua, Balenziaga ointxe eztakit ez dan bere zeren bat urtiak edo ome-  
naje bat edo ze iñ bia xaue, Balenziaga horrekin be ibilittakua naiz  
hala joste atzeaurrera eta Balenziagakin be, eta jente aberatz haun-  
dixari josittakua naiz, eta amistade oonak euki ttut bai eeta zea-  
ri be, beste gizon batce oso zea Ameriko Castro haren e izeba batzu-  
ei ta be itten notzan, Americo Castro Oñatin eon zan bere izeba batzun

etxian Madinabeitia etxia hor dau ondiok Santa Maiñan,oiñ jentiari esan bai Madinabeitiana ta ze etxe da baina Madinabeitiana esaten daue,ta puntu arte hortxe bizi izandakuak Madinabeitiatarrak,Jose Madinabeitia sozialistia izandakua ta horkotxe semiak bai eta Madinabeitiatarrak oso oso mediku famosuak izandakuak eta horreikin be ba horrein llobakin ta laguna izandakua joste kontuakin bai,ta Americo Castrok be hortxe Madinabeitiatarren etxian emun nontan e eskua,ni bere lloba,tia,izeba batzuri e erropa itten da holaxe,ta beste bate-ri be eskua emunda nau ta lotsatu itten naiz esaten,ha e ha etzan e-rrropa kontuatik e,konbidau in ninduaiñ e Donostiako etxekoandra jaun batzu e espozisiño bat ikustera euskaldunak efini ebeiñ espozisiño bat e fabrikatakuak hortxe Kursal azpixan edo hor Donostian eon zan espozisiño bat e erremientanak eta gauzanak eta ni be konbidau nindueiñ da han eon nitzan da Frankon andriari eskua emundakua naiz,je,je,gustora ero disgustora,ta Oñatiko bat euan hantxe estee espozisiñua erakusten da ikaaratuta geatu zan ni han ikustiaz,ee bai eta holaxe jente haundixen artian asko ibili naiz baina neu gustorau ebiltten naiz e gere tartekuakin.

Ba San Anton kalian euan etxe bat neuk argazkiak badakot horrenak eta iratzitta bebai Zeruko Argian lehenau eta izan zan izugarri negar-garrizko gauzia itxe hori botatia,Reyes euen alkate,ha ezetzian euan,etzala bota bihar baina geo beste inddar batzu hasi zian baiezkuan ta zerian eta hasi zianian botaten fan nitzan aiuntamentura be:Reyes Txaineneko etxia hasi dia botaten;bai ba eztakoi permisoik onddiok botateko.Baina zerbait baten batek e botateko gogua eukeinak e nunba-it nunbaittetik ataa ebeiñ e baiezku hori eta hor geatu zan itxe hori botata,penagarrixa izan da baina haundixa penagarrixa itxe hori botatia,ba hor eoten zian goiko torreko torre Zumelzegiko "Conde Oñate" edo esaten xakon haren zaintzailiak eta zainak itxia zan zainena eta gu zainenetik ba Txainena sortu zan,hori askotan letrak e al-

ketan dia eta hor eoten zian ba haren e zaintzailiak esatebateko soldauak antzera eta penagarrixa izan zan itxe hori botatia baina ia ez-tako erremeixorik,oiñ argazkiak eta neuk badakot hor gordeta ezta,eta izugarriko penia hartu neben nik eta bota behar etzan etxe bat bota zan hori,hoixe bai etzala bota bihar itxe hori,zeatik Oñatiri emuten otzan e grandeza haundi bat gauza eder bat emuten otzan,lehen go gauza zaharrak,ze izan zan Oñati tta ba gauza haundixa zan hori e zutik eukittia hori zutik eukittia komeni zan Txaineneko itxe hori eta hoixe gertatu zan bota zan da kitto,botatako gauziak ez dako erremeixorik ta geo Santa Maiñako plazan be ba itxe ederrak badauz,Antixena ondiok bere jabia dako,Antixena esaten xauna gu,Sarasua bebai lehen Sarasua esaten gotzan geo Antixena ta hola eta geo beste bat Madiñabeitiana,euron eskudo ederrakin dauz horreik etxe bi horreik Antixena ta Madinabeitiana ,ta Madinabeitien jatorrikuak ba Madri aldiian ta bizi dia baten batzuek eta,azkenengoko jabiok bi ahizpa zian Felisa ta Maria damak esaten xaten,dama Maria ta dama Felisa,lehenau señoraai ta damak esaten xaten da,azkenengoko Oñatiko damak horreitxek izan zian Madinabeitienukuak eeta ba llobai esan osten estutu zianian eurak euren e diru kontuan da estutu zianian,gorabeherak izaten dia munduan be taa;behia jo ebeñian,itxia saltzera etorri zian ta lehenengo esan ostaiñ llobai:ba eztaku beste erremeixorik ezin geike geuk sosteniu etxi hau ta e zuek erosi zue llobai esaten osten da llobak pe ez eusen nunbait oso...boyan-te diruakin epoka hartan,gerria ta hareik pe etzian ba Frankon aldekuak be ta ba ibiliko zian justo antzian edo behintzat tiai esan otzaiñ ba ezin geke ba guk pe heldu itxi horri ta pena daku jare ittia baina, ta holaxe beste batzuen eskura fan zan,eta oin ba jente partikularra bizi dia ba,jentea ba hiru edo lau familixa bizi dia bertan da hola, eta Oñatik itxe eder asko galdu dau ia ezkutau dia sendi osuak ezkutau dia lehen halako herrixa zana itxe asko dauz eskuduakin da,baina askok eta askok aztarrenik pe eztakixei familixa horreiñik sendi horreinik,

Oñati itxe herri ederra izandakua eta señoiala izandakua da, itxe ja-  
 tor asko dau Oñatin, baina danak doiasei halaxe jausten jausten, oiñ e  
 Larrañaga etxi hori be Don Pedruena esten xauana hori be erosi daue-  
 la kontratista batek eta eztakit e etxaue itxiko botaten dana harriz-  
 kua da ta, kanpotik etxaue ikutu bihar etxaue ikutu bihar, jardiña dako  
 ta jardiña libre itxiko daue, kale batetik eta bestetik e errajazko a-  
 tiak dako jardiñ horrek eta hor e pasadizua ifiñiko daueila dixue jar-  
 din hortan, jentandako izango dala jardiñ hori, hola dixue eta gero ba  
 plazan dakou e parrokixia itxe zar zar zar bateaz tapauta, dana ruinan  
 dau, jausten dauen etxe bateaz parrokixia tapauta eta ontxe egun urte  
 pasatxo edo hola da in zala etxi hori, enplastua esaten xat nik, parroki-  
 xak dakon enplastu hori ontxe egun urte pasatxo izango da, ta orduko ja-  
 untxoak pentzau ebeiñ plazia dotoreketia ta plazia pentzau ebeiñ ittia,  
 hartu ebeiñ asmua lau aldetatik arkupeiak efintteko eta beste jauntxo  
 batzu urten ebeiñ aurka, nola kenduko xau ba gere enparantza ederrari  
 bistia Aloña aldeko bistia ta Altamira aldia ta dana tapauta geatuko  
 da ta hor itxiak indda alde hortatik, oiñ iturrixa dauen aldia da, ba  
 esan ebeiñ errazoa zala ez ebeila ingo alde hortatik etxerik ezebeila  
 ingo eeta ba plaza dana bueltia emutiatik elizia tapauta itxi ebeiñ eta  
 gero berihelaxe damutu zian, ene guk inddu ittekua parrokixa bi partetan  
 itxi duu eta tapauta itxi duu parrokixia, eta botateko eon zian, HAU ezin  
 leike hola itxi ia ke beste alde hortatik ez dan eiñ arkuperik pe, dana  
 ttota geatuko zan plazia lau aldetatik arkupeiak indda eta botateko e-  
 on zian ta gero beste batzuk esan ebeila, bueno bueno hurrengo datozenak  
 e bota eixeila guk iñ dounezkerok dauela holaxe ta gero hurrengokuak e  
 bota eixela gura badaue, ae itxi in bihaku hola ta holaxe geatutako itxi-  
 ak dia horreik, ta oin dau ruina baten eztako zimientorik pez eztako, te-  
 llatua be ezin leikiela aprobetxau dana bota biha dala etxe barrixak i-  
 tteko, hor teilatua be bota in biha dala dana eeta estee zeak horreik  
 Donostian badia okupaitten dianak etxe horreitakin dda; kontratistak?  
 ez e, ontxe esangotzut....ba...ninxoian...Donostian badausela "Obras

Artísticas" horreittan okupaitten dianak eta horreik oso ibili dia enpeñauta estee horreik bota in biha diala ta hola eta hori itxe aministratzen daueiñak ba abare bat da ezta abare bat eta harek e dirua atara gura ba dirua atara gura etxe horreiñ gainian,dirua atara gura ,eurak pe biharrian dausela edo eztakit zer,eeta gero ba entendi ezinik ibili dia ta azkenian be kontatista bati saldu xau,saldu xau klaro alkatiak pe hartu eben parte ezta,alkatiak pe hartu bihar izaten dau gauza horreittan parte eta,alkatien gogua botatekua baino ez botatekua gehixau,hola plazia ondo dauela,baina plazia ondo e-gonaatik elizia oso gaizki dau,ta jentia esaten dau ze ederki geatuko litzakeen itxe horreik danak bota eta unibersidadiak dakon mouan aurrekaldian ha katea,holako kateaz efiñi prazuelia ta gainera ontxe hamar urte edo Reyesek e bialdu eben e zeetan ee herriko programan atara eben zela geatuko litzakien hori botata eta jentia oso animauta eon zan horreik bota in biha diala itxe zahar horreik bota in biha diala eta elizia bakar bakarrik itxi eta geatuko litzake parrrokixia eta aintamentua parez parez eta ikusgarri gauza ederra plazia geatuko litzake,hola jardiñ pittintxo bat eta efiñitta ta beste horreik kate horreik efiñitta ta,geatuko litzake ikusgarrixa,oso gaizki dau eta oin ba etxaue isten kontratistiari be beak gura dauen mouan itten be gauzak zeorreik Donostiako Diputaziñoko junta horrek etxau isten e berak gura dauen mouan itten,teilatu dana bota biha dala ta teilatu dana botateko diru asko bihar ta kontratistiandako be gaizki dator eta eztakit zertan geatuko dan gauzia,balittekela onddiok e botatia be,bai zeatik konpondu ezinik dabitz,zeati da makal makal makala etxia oso makala,guri eztoskun isten neskatilatan da be dantzariak eta ikusten da be hor e balkue horreittara,balkue horreittan eoten be jentia ez daue isten,jausteko peligrua dau,zeak e arkiteto batek baino gehixau prohibiuta dako ez kargaitteko etxi hori ez dakola zimientorik eta ezebe,ia jausteko mouan dau dana ta ezebeñ isten,euki ebeñ karlistak pe hor e zea zirkulua eta be-

hin e hasi zian e teatruak itten be ta prohibiu iñ otzain ezin leikieka jentiakin kargau,holakotxe makala da etxi hori oin esaten daue badausela arte batzu e gogorketakuak pe,baina azpittik be lehenguni-an gizon batek esaten nostan azpittik be gainea errekoa doia ta hor zela gogortuko daue ba azpittik errekoa doia ta,ta gero beste gizon batzu esan nostaiñ,gainea oso gaizki portau dia herrixakin kontau barik e inddaue saltzeiok eta gauza guztiok zeatik e parrokixia danona da ,parrokixia danona da da bai eta herrixakin kontau bihar ebeiñ hor saltzen ibili dianak eta hortan be errazoia emuten xat nik gizon horreiri,herrixakin kontau barik iñ daue ta.

.-----o-----o-----o-----.